

8

BIZKAIA

# Estepona ibaiaren osina



## Ingurumen-garrantzia

Estepona ibaiaren tarte honek natura- eta ingurumen- balio handiko eremua da, eta kontserbazio egoera onean dago. Ibai ertzetako landaredia oparoa da: haltzak (*Alnus glutinosa*), lizarrak (*Fraxinus*

*excelsior*) eta hurritzak (*Corylus avellana*), besteak beste. Arrainetan amuarraina (*Salmo trutta*) eta loina (*Parachondrostoma miegii*) ditugu.

Kontserbazio egoera onari esker, ur-  
ipurtatsa (*Mustela lutreola*) ere bada  
hemengo biztanleetako bat.

URAREN  
EUSKAL  
AGENTZIA

AGENCIA  
VASCA  
DEL AGUA

→ 0,3 km



6 min



Hurbileko herria:  
**Bakio**



Ibaia:  
**Estepona**



Ingurunea ez dago arriskuetatik  
kanpo



65 m

↗ 17 m



52 m

↘ 5 m

## ESTEPONA IBAIAREN OSINA



# Estepona ibaiaren osina



## Non dagoen eta nola heldu

Estepona ibaiko osina, infernuko osina, Bizkaiko Lurralde Historikoan dago, Uribe eskualdeko Bakio udalerrian.

Hara heltzeko, Bilbora eta Mungiara doan BI-2101 errepidea hartuko dugu.

Urkizaur auzoko azken bide-taloa pasa eta udaletxea pasa ondoren, eskuinera joko dugu, eta bi koma hiru kilometroren ostean, hogeita lau koma bost kilometroan, pista batera eramango gaituen bidebanatze batean ezkerretara hartuko dugu.

Bertan utziko dugu ibilgailua ibilbideari ekiteko.


Zelaigune hartatik ibairainoko bideari ekin eta ibar ezkerretik doan bidexka bat hartuko dugu.

Ibia igaro eta bidea segitu behar dugu berriro ibairaino.

Beste behin ere igaroko dugu ibia, eta ibar eskuinetik jarraituko dugu bidexka estu batetik.

Ehun bat metro egin eta gero, ibilguaren hareharrietatik osinera amiltzen den uraren magiak harrapatuko gaitu.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina neguan, ur maila dela-eta, nekez igarako dugu ibia.



Deskargatu  
ibilbidea:



KML



GPX



Wikiloc

Ezagutu ibilbide  
guztiak hemen:

# Estepona ibaiaren osina



# Estepona ibaiaren osina

